

## AMA DOLOREETAKOARI.

---

Zugana nator, ama nerea,  
 Nator bai, ama, zugana,  
 Adi zadazu kontu guziaz  
 Eskatutzera noana;  
 Kantatutzea zure dolore  
 Zazpiak, da nai dedana,  
 Onetarako zure laguntza  
 Indazu ama laztana.

Jesus Aitari eskeñitzeko  
 Eldu zanian denbora,  
 Pekatari bat bezela zoaz  
 Jerusalengo tenplora;  
 Jesus onaren pasio dana  
 Simeonek dizu gogora,  
 Orra anima josiko dizun  
 Ezpata zorrotz gogorra.

Aur jayo-berri Jesus-ganako  
 Erodes dago gorrotoz,  
 Bere soldadu odol-zaleak  
 Umeak illaz or datozi;  
 Ejipton Jaunak probatu zaitu  
 Eramankizun chit askoz,  
 Zazpi urteak bete dituzu  
 Neke izerdi ta malkoz.

Jerusalengo tenplo santuan  
 Jesus zanean gelditu,  
 Ditu amabi urteko aurruk  
 Jakintsuenak arritu:  
 Eziñ arkituz zure semea  
 Osoro zera larritu,  
 Iru egunez, ¿nola etzaitzu  
 Biotza penaz zatitu?

Jesus dijoa gurutzeakiñ  
 Ta bi lapurren erdian,  
 María berriz negarrez urtzen  
 Seme onaren galdean;  
 Amargurako kalian ara  
 Kalbariora bidian,  
 Ama semeak penaz ill bear  
 Dira oraingo aldian.

Kalbarioan gurutzeari  
 Iltze gogorraz josia  
 Dago burutik oñetaraño  
 Zauri egiñik guzia;  
 Semea ill ta ¿nola diteke  
 Gorde amaren bizia?  
 Zuk daramazun pasioa da  
 Samiña eta luzia.

Zabal ezazu zure magala  
 Zabaldu zure besoak,  
 Zugana nai du jechi semeak  
 Artzera laztan gozoak:  
 Laztantzen dezun zauri egiñik  
 Dagoen gorputz osoak  
 Adierazten digu, zer diran  
 Pekatarien pausoak.

igo baziñan Ama maitea  
 Kalbarioko mendira,  
 Lurreko zure atsegíñ-pozak  
 Biotz zuretik juan dira:

Badaramate gorputz ill zure  
 Semearena obira,  
 Arkaitzak miñez puskatzen dira  
 ¿Nola zaude zu begira?

Zu naigabetzen pekatuakiñ  
 Bizitu banaiz luzaro,  
 Zure oñetan emen naukazu  
 Damuturikan osoro;  
 Zure dolore zazpiak ditut  
 Gogoratuko goiz-oro  
 Zeruan gero ama maitea  
 Laztan zaitzadan gozoro.

PEKATARI BATEK.

## ETIMOLOGÍAS BASCO-LATINAS



Eibar 10 de Abril de 1886.

Sr. Director de la EUSKAL-ERRIA.

Muy Sr. mio y amigo de mi mayor consideracion: la numeracion euskara, como todo lo que pertenece á nuestra misteriosa lengua que tantos secretos ha de revelar á la ciencia, ofrece al observador atento curiosos é interesantes detalles que deben ser conocidos de los filólogos; mas no se puede hablar de ella sin tener en cuenta los siguientes importantísimos datos:

1.<sup>º</sup> La certeza que se tiene de que el hombre ha comenzado á contar por los dedos, hecho que nuestro sabio y erudito Astarloa lo comprobó en cierto modo, citándonos varias lenguas (Americanas segun creo) en las cuales *cinco* se llama una mano, *diez* dos manos, *veinte* manos y piés, ó un hombre, etc.